**2003KO IRAILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA**: Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Laua.

**HILABETEA:** Iraila.

**URTEA:** Bi mila eta hirua

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA**: Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea
Imanol Aranburu Gutierrez
Juan Martin Aldaregia Etxebarria
Jon Olano Arrese
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
Malu Vallés Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Alfonso Segade González
María Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Gonzalo Zaldo eta Arana
Iñaki Saldaña Herrero

**ETORRI GABEAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA**. 2003ko ekainaren 26ko aktaren onespena.

Ezagutzera eman ondoren 2003ko ekainaren 26ko aktaren onespena, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

Jose Antonio Sanchez jaunak, PSE-EEko ordezkariak esan du ondoko xehetasuna aipatu du aktaren formarekiko: "Se nos envia un acta íntegramente en euskera y otra en blingüe, primero se redacta en euskera y luego en castellano, y resulta un tanto complicado su manejo. Creo que en defensa del bilingüismo y por economía, es más manejable que se redacte un acta en euskera y otra en castellano."

Idazkariak azaldu, Udalbatzako erabakia dela aktak zinegotziek hitz egiten duten eran jasotzea. Beraz, ez da sekula euskara edo gaztelania hutsean jasotzen. Jatorrizko akta, hitz egiten den eran jasotakoa da eta ondoren itzultzera bidaltzen da.

Alkateak esan du proposatutakoa euskara batzordean komentatuko dela, egon daitezken eragozpenak saihesteko.

**2.- ARAU SUBSIDIARIOAK**

a- 18 HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketari egindako aldaketaren irizpide eta helburuak onartzea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman du:

"**AURREKINAK**

Udalbatza Osoak 2003ko maiatzaren 9an egindako bileran hasierako onespena eman zion 18 Harekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketaren aldaketari behin-behineko onespena eman zion eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen behin betiko onespena emateko.

2003ko ekainaren 2ko datarekin, Udalean sarrera izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko idatzia adieraziz, Plangintza Erregelamenduko 125. artikuluan aurreikusitako tramiteari buruzko dokumentuak aurkeztu behar direla, hau da, irizpide eta helburuak jendaurrean egon direla kreditatzea. Izapide hau egitea ez zen beharrezkoa ikusi, izan ere 2000ko maiatzaren 2an Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onespena emandako Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketa izapidatzean burutu zen.

Beraz, Aurrerakina jendaurrean jarri da hogeita hamar eguneko epean GAOn eta “Diario Vasco” nahiz “Eguneron” iragarkiak argitaratuz eta epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamendu Erregelamenduaren 125,3 artikuluak xedatutakoa betez, Udalbatzarrari gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEaren 47,3i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

**Lehenik**. 18 Harekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketari egindako aldaketaren irizpide eta irtenbideak onartzea. Irizpide eta irtenbide horiek hauek izango dira:

- Lehen (Arau Subsidiarioen lehen aldaketa) eraikitzeko (18 HAk Barne Berrikuntza Egitasmo Berezia eta Xehetasun Azterlana), zegoen zoruaren zati bat ezabatzea, Igartzako (jauregia, Errota, Burdinola) multzo monumentalarentzako gune librea erreserbatzeko

- Oria ibaiko eskuinaldeko ertzean kokatutako etxadiaren profila handitzea, lehen aurreikusitakoarekiko oin bat gehiago eraikitzea baimenduz. Horretarako, lehen onartutako gehienezko profilak aldatu egin behar dira eta kopuruak doitzeko, etxe eraikigarriaren sabaia 200 m²tan handitzea dakar (honek ez du eraikigarritasun handiagorik suposatzen, baina erregistroan inskribatutako eta exekutatuko beste lursail batzuei emandako eskubide teorikoak mantentzen dira).

-Bloke berean bigarren garaje-sotoa egitea, eraikinak dituen etxebizitzen garaje-demanda estaltzeko.

**Bigarren**. Erabaki honen eta burututako izapidearen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea, aipatutako aldaketaren behin betiko onespenaren etetea altxatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU) adierazi du bere jarrera abstentzioarena izango dela.

Julio Herreros jaunak (PP) adostasuna azaldu du proposamenarekiko.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE) adostasuna azaldu du proposamenarekiko.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: =
Abstentzioak: 1 (EB/IU)

Horren ondorioz, legeak ezartzen quorumarekin onartu da proposamena.

b- Arau Subsidiarioen Ittola 6. Sektorearekiko aldaketaren hasierako onespena eta kudeaketa eratzeari buruzko proposamen-akordioa.

Alkatea jaunak (EAJ/PNV-EA) hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Itola 6. Sektoreari buruzko Planeamenduko Araua Subsidiarioen aldaketa.

**AURREKINAK**

6. Sektorearen eremua aldatzeko helburua Sektorekako Lurralde-Egitasmoan (otsailaren 27ko 41/2001 Dekretua) aurreikusitako trenbide sare berriak sortzen duen eraginaren ondorioa da.

Beasaingo Udalak sustatutako “Itola 6. Sektoreari buruzko Planeamenduko Araua Subsidiarioen aldaketa” izeneko hirigintza-dokumentua, trenbide berriaren behin betiko trazatua erabaki arteko premiazko neurri gisa egin da.

Egun indarrean dauden Planeamenduko Arau Subsidiarioen helburuen artean 6. Sektorearen ordenamendua aurreikusten da, garapen industrial berrei aukera emateko.

Hiritargarri-zorua delako Egitasmo Partziala egitea proposatzen da, garapen dokumentu moduan. Irizpide horiei jarraituz, Egitasmo Partziala idatzi eta izapidetu egin zen, zoru industrialari buruz eskuduntza duen lurralde organismoei, Beasaingo Udaleko beharren eta borondatearen berri emateko.

Aipatutako dokumentuari hasierako onespena eman ondoren eta ezagututa Euskal Herriko Trenbide Sare Berriari buruzko Sektorekako Lurralde-Egitasmo dokumentua, Egitasmo Partziala, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publiko Departamentura bidali zen eta honek emandako txostenean bi aukera azaltzen ziren:

1.- Gutxi gorabehera urte beteko denbora itxaron, Eusko Jaurlaritzak denbora gutxi barru kontratatu behar duen eraikuntza proiektuak, eremuaren

okupazioa behin betiko mugatu arte, okupazio-zatia era garrantzitsuan murrizteko.

2.- Erreserba-eremuan aurreikusitako erabilerak reordenatzea, horrela Sektorekako Lurralde- Egitasmoaren xehetasunen 25. artikuluan aurreikusten den salbuespena betetzeko, beti ere, interes orokorreko zerbitzu publikoak, nahiz aparkaleku, bide erabilerak etab., jasotzen badira.

Dena dela, kontuan izanik egun Beasaingo Udalak zoru industrialik ez duela, erabaki du Sektorekako Lurralde- Egitasmoagatik afektatuta ez dagoen eremua martxan jartzea eta honekin batera doan dokumentuarekin indarrean dauden Arau Subsidiarioen 6. Sektoreko eremua reordenatzea, eremuaren mugak aldatuz eta murriztuz, gelditzen den eremuaren zatia zoru ez hiritagarri moduan utziz eta Trenbide erabilerako Sistema Orokorraren eremua erreserbatuz, Trenbide Sare berriaren trazatua egin ahal izateko.

Horren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125 eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzarrari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

**Lehenik**. Itola 6. Sektoreari buruzko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, adieraziz ordenazioaren helburu-urbanistikoak hauek direla

- Tamaina txiki eta ertaineko industria berriak jasotzeko ordenazio industriala.
- Arriarango errekatxoaren estalketa bukaerainoko zatiarte betetzea.
- 6. Sektoreko ertzetik sortzen den bidea 29. HArekin lotzea.

**Bigarren**. Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GAOn eta probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jauna (EB/IU): “Aprobamos, esperando que este polígono cree empleo de calidad para los vecinos, siempre que no sea en precario”

Julio Herreros jaunak, PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Antonio Sanchez jauna (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no podemos aprobar la modificación de las NN SS en relación al Sector 6, fundamentalmente porque nuestro grupo históricamente ha venido

oponiéndose a todas las actuaciones habidas en relación al mismo desde el Ayuntamiento. En concreto nos referimos a la clara y concisa oposición que en su momento manifestamos a la permuta de terrenos que se formalizó con Indar, ya que alegamos para ello que este terreno podría sufrir una devaluación por el trazado del tren de alta velocidad. Por lo tanto, manteniendo nuestra posición inicial, nosotros no estamos de acuerdo con la modificación que se propone por entender que aún puede haber algún problema. Ello no significa que estemos en contra de la creación de empresas y consiguientemente de puestos de trabajo, sino todo lo contrario, tal y como a lo largo de los años venimos demostrando en apoyo a la pequeña y pequenísima empresa, no sólo en Beasain sino en todo el conjunto de nuestros territorios. Me remito a este efecto, a las posiciones que el partido socialista ha tenido en Beasain, en la comarca y en Gipuzkoa. "

Patxi Plazola jauna (EAJ/PNV-EA): "Esandakoari erantzunez esan, aipatutako trukea arriskuarekin egin zela. Uste dugu apustu horrekin irabazi egi behar dugula. Truke hori onerako izan zela iruditzen zaigu. Urte gehiago sektoreko horretako garapena atzeratzea oportunitate bat galtzea da."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta emaitza hau lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU)
Aurkako botoak 3 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da Arau Subsidiarioen Ittola 6. Sektorearekiko aldaketaren hasierako onespena.

6. Sektorearekiko kudeaketa eratzeari buruzko proposamen-akordioa.

Alkate jaunak hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman du:

"Gaia: 6. Sektoreko kudeaketa.

Kontutan izanik, 6. Sektorearekiko proposatutako Arau Subsidiarioen aldaketan Ittolako Sektorea garatzeko elkarlanerako kudeaketa sistema aurreikusi dela eta "Beasain Lantzen, S.A."ren helburua babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak sustatu eta eraikitzeaz gain, zoru industriala kudeatzea dela,

Hirigintza batzordeak aipatutako Sektorearen garapena arintzeko eta Zoru Legearen (115. artikulua) eta Hirigintza Kudeaketa Araudiaren (106. eta

193. artikuluak) arabera, Udalbatza Osoari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

**Ittola 6. Sektoreko kudeaketa, udal sozietate publikoa den "BEASAIN LANTZEN, S.A.ri" enkargatzea**."

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda eta aho atez onartu da proposamena.

c- 4. HAri buruzko 4 zenbakiko planoa onartzea. "Lurzoruaren kalifikazioa. Lur eremu hiritarrezinaren antolaketa"

Alkatea jauna hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman du:

"Gaia: hiritarrezinaren lurzoruaren kalifikazioaren 4 zenbakiko planoa, 4 HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruz.

Diputatu Kontseiluak 2003ko apirilaren 29an, Beasaingo 4. HA eta 8. Sri dagokien Arau Subsidiarioen aldaketa behin betiko onartu zuen, adieraziz "lurzoruaren kalifikazioa. Lur eremu hiritarrezinaren antolaketa" izeneko 4. Planoa Udalbatza Osoak onartuta, espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatu den eremua behar bezala grafiatuta eta diligentziatuta igorri behar dela, espedienteari erantsi ahal izateko.

Plano hori zerbitzu teknikoen egin eta gero, batzorde honek Udalbatza Osoari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

**Lehenik**. Honekin batera doan planoa onartzeko eta behar den moduan diligentziatuta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzeko."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU) esan du bere jarrera abstentzioarena izango dela.

Beste taldeetako ordezkariek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB/IU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**<u>3.- GOI-ETXEk egindako LAGAPENA</u>**. Pasabide publiko bide-zorra eratzeari buruzko onespena.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "GOI-ETXE, S.A.k Dolarea parean egin duen eraikinaren iparraldean dagoen terrenoaren lagapena onartzean datza."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

- Dulce María Loinaz plazan13 eta 14 zenbakiko eraikinaren iparraldeko mugan dagoen terrenoaren zatia, hain zuzen ere, hogeita lau metro luzera eta zazpi metro zabaleran dituena eta pasabide publikoa dena onartzea, GOI-ETXE, S.A.k lagatutakoa.

- Patxi Plazaola Muguruza Alkateari baimena ematea, onarpen-dokumentua sinatzeko.

**<u>4.- ARAUDIA</u>**. Beasaingo Udaleko kolektoreetako isurketak araupetzen dituen araudiari hasierako onespena ematea.

Alkatea jaunak (EAJ/PNV-EA): "Dakizuenez estolda nagusia martxan jarri da Goierrialdean. Estolda hori, Idiazabal, Olaberria, Beasain, Ordizia eta Itsasondotik pasatzen da eta Legorretaraino iristen da, herri honetan baitago depuradora. Kolektorea Gipuzkoako Ur-Partzuergoarena da eta bertara herriko urak isurtzen dira. Araudi honek aipatzen ditu Udalak betebeharrekoak uraren kalitate eta kantitateari buruz. Zehazten dena da zein motatako urak izango diren, nolakoak izango diren kanalizazioak, isurketa industrialak zein baldintza bete behar dituen etab.

Proposatzen dena da, hasierako onespena ematea eta espedientea 30 eguneko epean jendaurrean jartzea erreklamazioak aurkeztu ahal izateko."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**5.- GKE**. Gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak esleitzea.

Alkate jaunak Imanol Aranburu Gizarte-Ongizateko Lehendakariari hitza eman eta honek ondorengoa esan du:

“Este es un tema que se trato en la comisión que celebramos en el mes de julio y con el que los grupos que acudieron a la misma se mostraron de acuerdo. El Ayuntamiento dedica a ONGs unos 100.000€ Con el 70% de esa cantidad se financian los proyectos presentados por las ONGs. El 20% se destina a situaciones de emergencia social, como inundaciones, terrmotos, etc., y el 10% restante se destina a mandar cooperantes a los países del Tercer Mundo.

Los criterios de selección son los siguientes:

1.- Experiencia de años anteriores, en cuanto a proyectos que estaban en marcha y procede seguir subvencionando.

2.- Experiencia de las entidades que han colaborado con el Ayuntamiento en campañas, en servir de soporte a los cooperantes, etc.

3.- Precio.

4.- Vecinos de Beasain implicados en los proyectos que se han presentado.

5.- En el caso de que una organización presente más de un proyecto, sólo se financia uno.

Ha habido proyectos que se han subvencionado al 100%, y otros en menor cantidad.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartua da:

“

**Gaia:** GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

Gobernuz kanpoko Erakundeek, ondoren aipatzen diren eta garatze bidean aurkitzen diren herrialdeetarako, ondorengo lankidetza-proiektuak aurkeztu dituzte:

**1.-GKE:** ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK (DONOSTIA). JOSE MARTINEZ, BEASAINGO MISIOLARIA.
**EGITASMOA:** PRECOL AUZOAN ALFABETIZATZEKO LAGUNTZA.
**HERRIA:** ANGOLA (AFRIKA).
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 9.000 €

**2.-GKE:** ARDURA PALIATIBOEN EUSKAL ELKARTEA**.** DONOSTIA.
**EGITASMOA:** BI GRUA HIDARULIKOEN ESKURATZEA A.B.E.I. ETXEAREN HORNIKUNTZARAKO.
**HERRIA:** ECUADOR
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 4.032 €

**3.-GKE:** EMAN ETA ZABAL. DONOSTIA.
**EGITASMOA:** " EMAKUME ALTEÑAREN GIZARTERATZEA ETA LAN MUNDUAN SARTZEA LORTZEKO INFORMATIKAN GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA.
**HERRIA:** BOLIVIA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 5.960,53 €

**4.-GKE:** ADECO (AMISTAD, DESARROLLO, COOPERACION). BILBO.
**EGITASMOA:** EMAKUMEEN KLUBEKIN SUSTAPENA ETA GARAPENA.
**HERRIA:** PERU
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 11.925,84

**5.-GKE:** HAURRALDE FUNDAZIOA. DONOSTIA.
**EGITASMOA:** KAWANTEN EMAKUME RATHWAREN POBREZIA ARINTZEA ETA INTEGRAZIOA INDARTZEA.
**HERRIA:** INDIA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA**: 14.571,19 €

**6.-GKE:** HAURRALDE FUNDAZIOA. DONOSTIA
**EGITASMOA:** " POBREZIAREN ARINTZEA EMAKUMEZKOAREN KAPAZITAZIOAREN ETA LANDA KOMUNITARIOAN PARTE HARTZEAREN BIDEZ BANSOA-CAMERUN-AFRICAN".
**HERRIA:** CAMERUN.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 12.361,75 €

**7.-GKE:** DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO CARITAS.

**EGITASMOA: "** OINARRIZKO MATERIAEN HORNIKUNTZA ETA CHIAPAS GAINETAKO EMAKUME INDIGEN TALDEEN LANAREN SUSTAPENA ETA KAPAZITAZIOA".
**HERRIA:** MEXICO.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 9.500 €

**8.-GKE:** MEDICUS MUNDI GIPUZKOA. DONOSTIA.
**EGITASMOA: "**WOKRON LAGUNTZA ETA PREBENTZIORAKO OSASUN PROIEKTUA"
**HERRIA:** ETIOPIA
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 3.977,91 €

**9.-GKE:** BAIKARA GIPUZKOAKO IKASLEEN GURASOEN FEDERAZIOA. DONOSTIA.
**EGITASMOA:** LEHEN MAILAKO IRAKASKUNTZARAKO ESKOLAK BIRGAITZEA**.**
**HERRIA:** ARGELIA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 6.000 €

**10.-GKE:** UNICEF (GIPUZKOA)
**EGITASMOA:** HAUR IRAKIARRENTZAT LARRIALDIETAN HEZKUNTZA PROIEKTUA. IRAKEN LAGUNTZA HUMANITARIOA.
**HERRIA:** IRAK
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 15.000 €

**11.-GKE:** ELAN-EUSKADI (GIPUZKOA).
**EGITASMOA:** " JINOTEGAN EL SACRAMENTOKO KOMUNITATEAN ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA"
**HERRIA:** NIKARAGUA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 17.433,85 €

**12.-GKE:** INGENIEROS PARA LA COOPERACION/LANKIDETZARAKO INGENIARIAK.
**EGITASMOA:** ENERGIA BERRIZTATZAILEAK: I.S.E.I.T-n EGUZKI ENERGIA.
**HERRIA:** BOLIVIA
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 16.421 €.

**13.-GKE:** GIPUZKOAKO OSCAR ROMERO SOLIDARITZA BATZORDEA. BERGARA
**EGITASMOA:** INDAR ELEKTRIKOA SARTZEA, HELDUEN ALFABETIZAZIOA ETA OINARRIZKO ALEEN EKOIZPENA.
**HERRIA:** EL SALVADOR.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** EDOZEIN DIRUKOPURUA.

**14.-GKE:** RUMANALDE. ERRENTERIA.
**EGITASMOA: "**KALEKO UMEAK" BABESTEKO ZENTROA.
**HERRIA:** RUMANIA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 21.460,83 €

**15.-GKE:** MUNDUKO DEIAK. VILLABONA.
**EGITASMOA:** BALWADIES(ERIZAINDEGIAK) ETA ANDHERI KOMUNITATEETAKO HAURRENTZAT IKASKETA ZENTROA.
**HERRIA:** INDIA
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 11.000 €

**16.-GKE:** ZULUETA FUNDAZIOA. DONOSTIA.
**EGITASMOA:** FAUSTINO PEREZ HOSPITAL UNIBERTSITARIOAN MEDIKU ZERBITZUEN BERRINSTALEKETA.
**HERRIA:** CUBA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 4.000 €

**17.-GKE: :** MUNDU SOLIDARIOA HELBURU (ARRASATE).
**EGITASMOA:** EZINTASUNA DUTENEI ZUZENDUTAKO ARRETA INDARTZEA.
**HERRIA:** NICARAGUA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 9.969,73 €

**18.-GKE:** ASKAPENA. HERNANI.
**EGITASMOA:** AL SON DEL 23 (URTARRILAK 23 AUZOA-CARACAS).
**HERRIA:** VENEZUELA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 3.683 €

**19.-GKE:** IZAN. DONOSTIA.
**EGITASMOA:** LEHEN MAILAKO HEZKUNTZAKO PROGRAMA.
**HERRIA:** REPUBLICA DOMINICANA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 9.086,59 €

**20.-GKE:** TAUPADAK (IRUN-GIPUZKOA).
**EGITASMOA:** LA CPEMB (CENTRAL DE PUEBLOS ETNICO MOXEÑOS DEL BENI), ESPERANZA DEL MOVIMIENTO INDIGENA AMAZONICO .
**HERRIA:** BOLIVIA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 9.000 €

**21.-GKE:** MUGEN GAINETIK. DONOSTIA.
**EGITASMOA:** ARRETA OSASUN INTEGRALEAN, EMAKUMEAREN ANTOLAKETA ETA UDAL GESTIO KOMUNITARIOAN INDARTZEA.
**HERRIA:** EL SALVADOR.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 12.368,04 €

**22.-GKE:** KOKU-YO. DONOSTIA.
**EGITASMOA: "**LUNA CRECIENTE EMAKUME SARAGUREN JAKINDURIA BERRITZEN".
**HERRIA:** ECUADOR.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 30.000 €

**23.-GKE:** PSICOLOGOS SIN FRONTERAS PAIS VASCO. DONOSTIA.
**EGITASMOA: "** ESKUHARTZE PSIKOSOZIALA DROGAREN MENPE DAUDEN ADIN TXIKIKOEKIN SANTIAGO DE CHILEN".
**HERRIA:** CHILE.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 16.050 €

**24.-GKE:** HONEK. ASTIGARRAGA.
**EGITASMOA: "** LOS QUINCHOS AURREN BABESA ETA ARRETARAKO ZENTRUA"
**HERRIA:** NICARAGUA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 40.001,26 €

Egindako bileran egitasmoak aztertu dira eta Gizarte-Ongizate batzordeak jarraian aipatzen dena proposatzen du:

- Garapen bidean ari diren herrientzat aipatutako finantzaketa-oinarrietan agertzen diren hautaketarako irizpideen arabera, ondorengo Gobernuz Kanpoko Erakundeak laguntzea, hau da:

**1.-GKE:** MUGEN GAINETIK.
**EGITASMOA:** ARRETA OSASUN INTEGRALEAN, EMAKUMEAREN ANTOLAKETA ETA UDAL GESTIO KOMUNITARIOAN INDARTZEA.
**HERRIA:** EL SALVADOR.
**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 12.368,04 €

**2.-GKE:** TAUPADAK (IRUN-GIPUZKOA).
**EGITASMOA:** LA CPEMB (CENTRAL DE PUEBLOS ETNICO MOXEÑOS DEL BENI), ESPERANZA DEL MOVIMIENTO INDIGENA AMAZONICO .
**HERRIA:** BOLIVIA.
**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 9.000 €

**3.-GKE:** HAURRALDE FUNDAZIOA.
**EGITASMOA:** " POBREZIAREN ARINTZEA EMAKUMEZKOAREN KAPAZITAZIOAREN ETA LANDA KOMUNITARIOAN PARTE HARTZEAREN BIDEZ BANSOA-CAMERUN-AFRICAN".
**HERRIA:** CAMERUN.

**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 12.361,75 €

**4.-GKE:** ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK (DONOSTIA). JOSE MARTINEZ, BEASAINGO MISIOLARIA.
**EGITASMOA:** PRECOL AUZOAN ALFABETIZATZEKO LAGUNTZA.
**HERRIA:** ANGOLA (AFRIKA).
**EMATEKOKO DIRU-KOPURUA:** 9.000 €

**5.-GKE:** MEDICUS MUNDI GIPUZKOA
**EGITASMOA: "**WOKRON LAGUNTZA ETA PREBENTZIORAKO OSASUN PROIEKTUA"
**HERRIA:** ETIOPIA
**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 3.977,91 €

**6.-GKE:** KOKU-YO.
**EGITASMOA: "**LUNA CRECIENTE EMAKUME SARAGUREN JAKINDURIA BERRITZEN".
**HERRIA:** ECUADOR.
**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 5.839,58 €

**7.-GKE:** PSICOLOGOS SIN FRONTERAS.
**EGITASMOA: "** ESKUHARTZE PSIKOSOZIALA DROGAREN MENPE DAUDEN ADIN TXIKIKOEKIN SANTIAGO DE CHILEN".
**HERRIA:** CHILE.
**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 5.839,58 €

**8.-GKE:** ELAN-EUSKADI (GIPUZKOA).
**EGITASMOA:** " JINOTEGAN EL SACRAMENTOKO KOMUNITATEAN ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA"
**HERRIA:** NIKARAGUA.
**EMATEKO DIRU-KOPURUA:** 5.839,58 €

**9.-GKE:** HONEK.
**EGITASMOA: "** LOS QUINCHOS AURREN BABESA ETA ARRETARAKO ZENTRUA"
**HERRIA:** NICARAGUA.
**ESKATUTAKO DIRU-KOPURUA:** 5.839,58 €"

**6.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA**. 2003. urterako plantila eta lanpostuen zerrenda.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "Gai hau maiatzean egindako gobernazio batzordean onartu zen eta orain ekartzen da Udalbatzarrera onartzeko, legeak horrela agintzen duelako lanpostu batzuen hornikuntzari hasiera emateko. Aurkezten den plantila ohikoa da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): "Voy a optar por abstención porque no sé que puestos de trabajo se van a crear."

Beste talde guztietako ordezkariek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (EB/IU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakiak hartu dira:

# 2003. urterako Beasaingo Udalaren plantila

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | TALDEA 6/89 LEGEA 43 ART. | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|
| **KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK** | | | | |
| Izara nazionaleko gaikuntzako eskala | | | | |
| **Idazkaritzako Subeskala** | | | | |
| IDAZKARIA………………………………………………………………………………………………………… | 1 | A | BB | |
| **Kontuhartzaileetzako Subeskala** | | | | |
| KONTUHARTZAILEA……………………………………………………………………………………………… | 1 | A | BB | |
| ADMINISTRAZIO ORROKORREKO ESKALA | | | | |
| Diruzaintzako Subeskala | | | | |
| DIRUZAINA………………………………………………………………………………………………………… | 1 | | | Behin-behineko izendapena, 1994-02-23ko Udal-erabakiaren arabera |
| **Subeskala Teknikoa** | | | | |
| Klasea: Goimailako Teknikariak | | | | |
| ANTOLAKUNTZA-TEKNIKARIA……………………………………………………………………………… | 1 | A | H | |
| Klasea: Erdimailako Teknikariak | | | | |
| ITZULTZAILEA………………………………………………………………………………………………… | 1 | B | | Lan-hitzarmen finkodunak betea. |

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | TALDEA 6/89 LEGEA 43 ART. | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|
| **Administrarien Subeskala** | | | | |
| PERTSONAL TEKNIKARIA……………………………………………………………………………… | 1 | C | J | |
| HARRERA BULEGOKO KOORDINATZAILEA…………………………………………………… | 1 | C | J | |
| ADM. OROKORREKO ADMINISTRARIA……………………………………………………………… | 5 | C | J | Plaza hauetako bat hutsik dago, 1994-02-23ko Udalbatzaren erabakiz Diruzaina behin-behinekotasunez izendatu izanaren ondorioz. |
| ADM. OROKORREKO ADMINISTRARIA……………………………………………………………………………………………… | 1 | C | BB | |
| ADM. OROKORREKO ADMINISTRARIA, INFORMATIKA-SAREAREN KUDEATZAILEA eta IDAZKARITZAKOA………………………………………………………………………………………………… | 1 | C | H | Antolakuntza eta Informatika Sailerako sortua. Plaza hau hornitzean Informatika saileko Administrari-Laguntzailearen plaza desagertu egingo da. Plaza hau minusbaliatuei zuzendua dago |
| **Laguntzaileen Subeskala** | | | | |
| ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA……………………………………………………………………… | 4 | D | J | |
| ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA, INFORMATIKA-SAREAREN KUDEATZAILEA…………………………………………………………………………………………… | 1 | D | BB | Antolakuntza eta Informatika saileko Administrari plaza hornitzean desagertu egingo da. |
| **ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA** | | | | |

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | TALDEA 6/89 LEGEA 43 ART. | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|
| **Subeskala Teknikoa** | | | | |
| Klasea: Erdimailako Teknikariak | | | | |
| APAREJADOREA………………………………………………………………………………………………………… | 1 | B | J | |
| Klasea: Teknikari Laguntzaileak | | | | |
| DELINEATZAILEA…………………………………………………………………………………………………… | 1 | C | J | |
| **<u>Zerbitzu Berezietako Subeskala</u>** | | | | |
| Klasea: Udaltzaingoa eta beronen Laguntzaileak | | | | |
| OFIZIAL-ONDOKOA (BURUA)……………………………………………………………………………… | 1 | C | J | |
| AGENTE LEHENA……………………………………………………………………………………………… | 2 | D | J | |
| AGENTEA………………………………………………………………………………………………………… | 8 | D | J | |
| AGENTEA………………………………………………………………………………………………………… | 1 | D | H | |
| Klasea: Eginkitzun Anitzetako Lanpostua | | | | |
| ASISTENTE SOZIALA………………………………………………………………………………………… | 1 | B | J | |
| ASISTENTE SOZIALA………………………………………………………………………………………… | 1 | B | BB | |
| GIZARTE ERAGILEA……………………………………………………………………………………………… | 1 | B | J | |

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | TALDEA 6/89 LEGEA 43 ART. | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|
| KULTUR-DINAMIZATZAILEA……………………………………………………………………………………… | 1 | B | J | |
| KULTUR TEKNIKARIA…………………………………………………………………………………………… | 1 | B | H | |
| LIBURUTEGI LAGUNTZAILEA…………………………………………………………………………… | 1 | D | H | |
| URAREN ARDURADUNA………………………………………………………………………………………… | 1 | D | J | |
| OBRETAKO LANGILEA……………………………………………………………………………………………… | 2 | D | J | |
| OBRETAKO PEOIA…………………………………………………………………………………………………… | 1 | E | J | |

## *PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK*

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | LANBIDE-MAILA | SARTUTAKO TALDEA | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| ZERBITZUBURUA…………………………………………………………………………………………………… | 1 | 2 | B | F | |
| ZABOR-ARDURADUNA……………………………………………………………………………………………… | 1 | 9 | D | F | |
| GARBIKETAKO ARDURADUNA………………………………………………………………………………… | 1 | 9 | D | F | |
| KALE GARBITZAILEAK………………………………………………………………………………………… | 5 | 10 | E | F | |
| MANTENIMENDU LANGILEA…………………………………………………………………………………… | 1 | 10 | E | F | |
| LIBURUTEGI-LAGUNTZAILEA…………………………………………………………………………… | 1 | 7 | D | F | |
| LIBURUTEGI-LAGUNTZAILEA…………………………………………………………………………… | 1 | 7 | D | F | Lanorduko %50 |
| ADMINISTRARI-LAGUNTZAILE………………………………………………………………………………… | 1 | 7 | D | F | Lanorduko %50 |
| ETXE-GARBITZAILEA………………………………………………………………………………………………… | 1 | 10 | E | F | |

2003. urterako Beasaingo Udalaren lanpostuen zerrenda.

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarriak | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu osagarriaren maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntza Eskakizuna | | Exijitutako Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo Eskala | Azpi-eskala | Mota | Maila | Derrigorrez-kotasun data | | |
| **(1)** | **(2)** | **(3)** | **(4)** | **(5)** | **(6)** | **(7)** | **(8)** | **(9)** | **(10)** | **(11)** | **(12)** | **(13)** | **(14)** | **(15)** | **(16)** |
| | | | | **KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK** | | | | | | | | | | | |
| **1** | Idazkaria | 1 | B | - | 24 | | - | I | EG | I | 2ª | 4 | 92-7-1 | ZL edo G | BEHIN-BEHINEKOA |
| **2** | Kontuhartzailea | 1 | B | - | 22 | | - | KH | EG | KH | 2ª | 4 | 90-2-1 | ZL edo G | BEHIN-BEHINEKOA |
| **3** | Diruzaina | 1 | B | - | 16 | | - | DZ | AO | DZ | | 4 | 90-2-1 | ZL edo G | Behin-behineko izendapena, 1994-02-23ko Udal-erabakiaren arabera |
| **1** | Antolakuntza Teknikaria | 1 | E | O.L. | 16 | | - | ANT. eta INF. | AO | GT | GT | 4 | 01-07-19 | ZL edo G | HUTSIK DAGO |
| **1** | Itzultzailea | 1 | E | | 18(1) | | - | I | AO | I | TE | 4 T.G. | | | Lan-hitzarmen finkodunak betea |
| **1** | Pertsonal Teknikaria | 1 | E | - | 15 | | - | I | AO | AA | - | 3 | 94-7-1 | GMB edo G | |
| **2** | A. Orokor. Administraria | 1 | E | - | 14 | | - | DZ | AO | AA | - | 3 | 93-7-1 | GMB edo G | Hutsik dago titularra Diruzain-postuari esleituta dagoelako. |
| **3** | Harrera bulegoko kordinatzailea | 1 | E | - | 12 | | - | I | AO | AA | - | 2 | 91-7-1 | GMB edo G | |

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarriak | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu osagarriaren maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntza Eskakizuna | | Exijitutako Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo Eskala | Azpi-eskala | Mota | Maila | Derrigorrez-kotasun data | | |
| **(1)** | **(2)** | **(3)** | **(4)** | **(5)** | **(6)** | **(7)** | **(8)** | **(9)** | **(10)** | **(11)** | **(12)** | **(13)** | **(14)** | **(15)** | **(16)** |
| **4** | A. Orokor. Administraria | 1 | E | - | 10 | | - | I | AO | AA | - | 2 | 92-7-1 | GMB edo G | |
| **5** | A. Orokor. Administraria | 1 | E | - | 10 | | - | ZB | AO | AA | - | 2 | 92-7-1 | GMB edo G | |
| **6** | A. Orokor. Administraria | 1 | E | - | 10 | | - | KH | AO | AA | - | 2 | 92-7-1 | GMB edo G | |
| **7** | A. Orokor. Administraria | 1 | E | | 10 | | - | HB | AO | AA | - | 2 | 91-7-1 | GMB edo G | |
| **8** | A. Orokor. Administraria | 1 | E | BEHIN-BEHINEK. | 10 | | | GO | AO | AA | | 2 | 96-2-29 | GMB edo G | |
| **9** | A. Orokor. Administraria / Informatika sarearen kudeatzailea | 1 | E | O.L. | 10 | | | ANT. eta INFO. (% 20 IDAZKARITZAN) | AO | AA | - | 2 | 01-7-19 | GMB edo G | HUTSIK DAGO, eta hau hornitzean Informatika saileko Administrari Laguntzailearen plaza desagertu egingo da. Plaza hau minusbaliatuentzat gordeta dago. |
| **10** | A. Orokor. Admi. Lagunt. | 1 | E | O.L. | 8 | | | I | AO | AL | - | 2 | 96-2-29 | GMB edo G | |
| **11** | A. Orokor. Admi. Lagunt. | 1 | E | O.L. | 8 | | - | I | AO | AL | - | 2 | 94-7-13 | GMB edo G | |
| **12** | A. Orokor. Admi. Lagunt./ Informatika sarearen | 1 | E | BEHIN-BEHINEK. | 8 | | | I | AO | AL | | 2 | 94-7-13 | GMB edo G | Antolakuntza eta Informatika saileko Administrari-plaza hornitzean desagertu egingo da. |

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarriak | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu osagarriaren maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntza Eskakizuna | | Exijitutako Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo Eskala | Azpi-eskala | Mota | Maila | Derrigorrez-kotasun data | | |
| **(1)** | **(2)** | **(3)** | **(4)** | **(5)** | **(6)** | **(7)** | **(8)** | **(9)** | **(10)** | **(11)** | **(12)** | **(13)** | **(14)** | **(15)** | **(16)** |
| | kudeatzailea eta idazkaritzakoa | | | | | | | | | | | | | | |
| **13** | A. Orokor. Admi. Lagunt. | 1 | E | O.L. | 8 | | | B.T | AO | AL | | 2 | 01-7-19 | GMB edo G | |
| **14** | A. Orokor. Admi. Lagunt. | 1 | E | O.L. | 8 | | | KH. | AO | AL | | 2 | 01-7-19 | GMB edo G | |
| **1** | Aparejadorea | 1 | E | - | 18 | | - | HB | AB | T | TE | 4 | 94-7-1 | AT | |
| **2** | Delineantea | 1 | E | - | 10 | | - | HB | AB | T | TL | 2 | 94-7-1 | OL | |
| **1** | Ofizial-ondokoa (Burua) | 1 | E | - | 16 | | - | UD | AB | ZB | UD | 3 | 96-2-29 | GMB edo G | |
| **2** | Agente Lehena | 2 | E | . | 12 | | - | UD | AB | ZB | UD | 3 | 99-2-29 | GMB edo G | |
| **3** | Agentea | 3 | E | - | 9 | | - | UD | AB | ZB | UD | 2 | 92-7-1 | GMB edo G | |
| **4** | Agentea | 2 | E | - | 9 | | - | UD | AB | ZB | UD | 2 | 98-11-26 | GMB edo G | |
| **5** | Agentea | 1 | E | - | 9 | | - | UD | AB | ZB | UD | 2 | 99-12-31 | GMB edo G | |
| **6** | Agentea | 1 | E | - | 9 | | - | UD | AB | ZB | UD | 2 | 94-7-13 | GMB edo G | |
| **7** | Agentea | 1 | E | | 9 | | - | UD | AB | ZB | UD | 2 | 99-4-29 | GMB edo G | |
| **8** | Agentea | 1 | E | O.L. | 9 | | - | UD | AB | ZB | UD | 2 | 01-7-19 | GMB edo G | HUTSIK DAGO |

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarriak | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu osagarriaren maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntza Eskakizuna | | Exijitutako Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo Eskala | Azpi-eskala | Mota | Maila | Derrigorrez-kotasun data | | |
| **(1)** | **(2)** | **(3)** | **(4)** | **(5)** | **(6)** | **(7)** | **(8)** | **(9)** | **(10)** | **(11)** | **(12)** | **(13)** | **(14)** | **(15)** | **(16)** |
| **1** | Asistente Soziala | 1 | E | - | 13 | | - | GO | AB | ZB | TE | 3 | 92-7-1 | GL | |
| **2** | Asistente Soziala | 1 | E | BEHIN-BEHINEKO | 13 | | - | GO | AB | ZB | TE | 3 | 92-7-22 | GL | |
| **3** | Gizarte Eragilea | 1 | E | O.L. | 13 | | - | GO | AB | ZB | TE | 3 | 01-7-19 | GS edo H | |
| **1** | Kultur-dinamizatzailea | 1 | E | - | 14 | | - | I | AB | ZB | TE | 3 | 90-9-27 | D. edo H.L. | |
| **2** | Kultur-Teknikaria | 1 | E | O.L. | 12 | | | I | AB | ZB | TE | 3 | 19-07-01 | D edo G | HUTSIK DAGO |
| **3** | Liburutegi Laguntzailea | 1 | E | O.L. | 8 | | | I | AB | AL | - | 2 | 29-02-96 | BMB edo G | HUTSIK DAGO |
| **1** | Ur-Arduraduna | 1 | E | - | 9 | | - | HB | AB | ZB | OP | 2 | 1-7-91 | BMB edo G | |
| **2** | Obretako langilea | 2 | E | - | 7 | | - | OL | AB | ZB | OP | 1 | - | BMB edo G | |
| **3** | Obretako peoia | 1 | E | - | 7 | | - | OL | AB | ZB | OP | 1 | - | EG | |

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Lanpostuaren maila | Atxikipen maila: Destinu osagarria | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | Adskripzioa | | | Hizkuntza Eskakizuna | | Exijitutako Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo Eskala | Azpi-eskala | Mota | Maila | Derrigorrez kotasun data | | |
| (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | (6) | (7) | (8) | (9) | (10) | (11) | (12) | (13) | (14) | (15) | (16) |
| | | | | <u>**PERTSONAL FINKOARENTZAKO LANPOSTUAK**</u> | | | | | | | | | | | |
| **1** | Zerbitzuburua | 1 | B | Oposizio-lehiaketa | 2 | B | - | TA | AB | ZB | TE | 3 | 94-7-13 | TE | |
| **1** | Zabor-enkargatua | 1 | E | - | 9 | D | - | GB | AB | ZB | OP | 1 | - | BMB edo G | |
| **1** | Garbiketako arduraduna | 1 | B | - | 9 | D | - | GB | AB | ZB | OP | 2 | 99-12-31 | EZ | |
| **2** | Kale-Garbitzaileak | 5 | E | - | 10 | E | - | GB | AB | ZB | OP | 1 | - | EZ | |
| **1** | Mantenimenduko Langilea | 1 | B | - | 10 | E | - | GB | AB | ZB | OP | 2 | 99-4-29 | EZ | |
| **1** | Liburutegi-laguntzailea | 1 | E | - | 7 | D | - | KU | AB | ZB | CE | 2 | 92-7-1 | BMB edo G | |
| **2** | Liburutegi-laguntzailea | 1 | E | - | 7 | D | %50 | KU | AB | ZB | CE | 2 | 92-7-1 | BMB edo G | |
| **3** | Administrari-laguntzailea | 1 | E | - | 7 | D | %50 | KU | AB | ZB | CE | 2 | 92-7-1 | BMB edo G | |
| **1** | Etxegarbitzailea | 1 | E | - | 10 | E | - | GB | AB | ZB | OP | 1 | - | EZ | |

## 2003. urterako Beasaingo Euskaltegiko plantila.

**PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | LANBIDE-- MAILA | SARTUTAKO TALDEA | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendaria | 1 | 2 | B | Behin betikoa | * Zuzendari lanpostua aldakorra da eta hiru urtetan behin hautatzen da. |
| Irakasle titularra | 3 | 2 | B | Behin betikoa | |
| Irakaslea | 1 | 2 | B | Finkoa ez jarraia | |
| Administrari Laguntzailea | 1 | 7 | D | Behin betikoa | |

## 2003. urterako Beasaingo Euskaltegiko lanpostuen zerrenda.

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu Kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarria | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu Osagarriaren Maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntz Eskakizuna | | Exijitu Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo eskala | Azpieskala | Mota | koefizientea | Derrigorrezkotasun data | | |
| (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | (6) | (7) | (8) | (9) | (10) | (11) | (12) | (13) | (14) | (15) | (16) |
| | | | | PERTSONAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANSPOSTUAK | | | | | | | | | | | |

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu Kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarria | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu Osagarriaren Maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntz Eskakizuna | | Exijitu Titulazioa | |
| 1 | Zuzendaria | 1 | B | - | 2 | B | - | BB | AB | ZB | ET | TG | - | EM | |
| 2 | Irakasleak | 3 | E | - | 2 | B | - | BB | AB | ZB | ET | TG | - | EM | |
| 3 | Irakaslea (Finkoa ez jarraia) | 1 | E | - | 2 | B | - | BB | AB | ZB | ET | TG | - | EM | |
| 4 | Administrari Laguntzailea | 1 | E | - | 7 | D | - | BB | AB | ZB | - | 3. | 1996-06-27 | LH I | |
| | | | | | | | | | | | | | | | |

## 2003. urterako Musika Eskolako plantila

2003. URTEA

**PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KOPURUA | ORDAINKETA MAILA | SAILKAPEN TALDEA | EGOERA | HIZKUNTZ ESKAKIZUNA | | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | KOEFIZIENTE A | DERRIGORREZKOTASUN DATA | |
| ZUZENDARIA | 1 | 13 + 4 | B | FINKOA | 4 | 1994 | |
| IRAKASLEA | 5 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1994 | |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1997ko iraila | % 29,9 (Txistu) |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1997ko iraila | % 45,7(Flauta) |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1997ko iraila | % 19,8 (Saxofoia) |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1999ko apirilak 29 | % 32,6 (Perkusioa) |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1999ko apirilak 29 | %8,4(Tronpeta) |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1999ko apirilak 29 | % 33,9 (Klarinetea) |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | - | 3 | 1999ko apirilak 29 | % 8,98(Tuba) |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 2001eko abenduak 13 | %34,6 (musika lengoaia eta pianoa) Donostiako 3 zk.dun Gizarte-gaietarako Epaitegiak 2001-05-15 datan emandako 217/01 zk.dun epaia betez sortutako plaza |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 2001eko abenduak 13 | %89,6 (Gitarra) Donostiako 4 zk.dun Gizarte-gaietarako Epaitegiak 2001-09-24 datan emandako 394/01 zk.dun epaia betez sortutako plaza |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 2001eko abenduak 13 | %34,8 (musika lengoaia eta akordeoia) Donostiako 3 zk.dun Gizarte-gaietarako Epaitegiak 2001-10-02 datan emandako 437/01 zk.dun epaia betez sortutako plaza |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | | 3 | 2001eko abenduak 13 | Trikitixa eta panderoa %63,9 Behin behineko lanaldirako kontrata-turiko pertsona-lekin betea |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | | 3 | 2001eko abenduak 13 | Biolina %32,3 Behin behineko |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | lanaldirako kontrata-turiko pertsona-lekin betea |
| LAGUNTZAILE ADMINISTRATIBOA | 1 | 8,5 | D | FINKOA | 2 | 1994 | % 100 |

## 2003. urterako Musika Eskolako lanpostuen zerrenda.

| 2003. URTEA | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ordena zkia. | Deitura | Lanpostu kop. | Hornitzeko era | Ordainketa maila EUFALEBA | Sailkapen taldea | Arduraldia | Saila | Lanpostu horretarako eskatutako betebeharrak | | | | | | Oharrak |
| | | | | | | | | Adskripzioa | | | Hizkuntz eskakizuna | | Eskatu tako titulazioa | |
| | | | | | | | | Taldea edo eskala (1) | Azpieskala (2) | Mota (3) | Koefizientea | Derrigorrez kotasun data | | |
| PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK | | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | Zuzendaria | 1 | | 13 + 4 | B | %100 | BB | AB | ZB | ET | 4 | 1994 | MI | Pianoa |
| 1 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %100 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 1994 | MI | Pianoa |
| 2 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %100 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 1994 | MI | Pianoa |
| 3 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %100 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 1994 | MI | Akordeoia |
| 4 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %100 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 1994 | MI | Biolina |
| 5 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %100 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 1994 | MI | Akordeoia |
| 6 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | % 29,9 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 97ko iraila | MI | Txistu |
| 7 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | % 45,7 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 97ko iraila | MI | Flauta |
| 8 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | % 19,8 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 97ko iraila | MI | Saxofoia |
| 9 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | % 32,6 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 99-04-29 | MI | Perkusioa |
| 10 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | % 8,4 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 99-04-29 | MI | Tronpeta |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 11 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | % 33,9 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 99-04-29 | MI | Klarinetea |
| 12 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %8,98 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 99-04-29 | MI | hutsik (Tuba) |
| 13 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %34,6 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 2001-12-13 | MI | Musika lengoaia eta Pianoa |
| 14 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %89,6 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 2001-12-13 | MI | Gitarra |
| 15 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %34,8 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 2001-12-13 | MI | Musika lengoaia eta akordeoia |
| 16 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %63,9 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 2001-12-13 | MI | Trikitixa eta pandero |
| 17 | Irakaslea | 1 | | 13 | B | %32,3 | BB | AB | ZB | ET | 3 | 2001-12-13 | MI | Biolina |
| 1 | Adm. Lagun. | 1 | | 8,5 | D | %100 | BB | AB | ZB | | 2 | 1994 | B.E. | |

OSAGARRIA: Zuzendaritza-eginkizunak egiten dituen irakasleak, maila-osagarria jasoko du ondoren adierazten den bezala eta eginkizun hori betetzen jarraitzen duen bitartean.

ZUZENDARIA 13 FINKOA + 4 Zuzendaritza-osagarria = 17

(1) A.B.= Administrazio Berezia; A.O.= Administrazio Orokorra

(2) Z.B.= Zerbitzu Bereziak; A.A.= Administrazio Orokorreko Administraria

(3) E.T.= Erdi Mailako Teknikaria; T.L.= Teknikari Laguntzailea; O.P.= Ofizioko Pertsonala

## 2003. urterako Kiroldegiko plantila

**PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | LANBIDE--MAILA | SARTUTAKO TALDEA | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| KUDEATZAILEA | 1 | 01 | A | F | |
| MANTENIMENDUKO LAGUNTZAILEA | 1 | 09 | E | F | |
| MONITOR HARRERAGILEA | 1 | 09 | E | F | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BALIOANIZDUN MONITOREA | 1 | 07 | D | F | |
| ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA | 1 | 07 | D | F | |
| | | | | | |

## 2003. urterako Kiroldegiko lanpostuen zerrenda.

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu Kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarria | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horretarako exijitutako ukanbeharrak | | | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu Osagarriaren Maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | Hizkuntz Eskakizuna | | Exijitu Titulazioa | |
| | | | | | | | | | Talde edo eskala | Azpieskala | Mota | koefizientea | Derrigorrezkotasun data | | |
| (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | (6) | (7) | (8) | (9) | (10) | (11) | (12) | (13) | (14) | (15) | (16) |
| | | | | PERTSONAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANSPOSTUAK | | | | | | | | | | | |
| 1 | Kudeatzailea | 1 | S | - | 20 | | - | GE | A.E. | S.E. | T.S. | 4. | 1994-12-31 | L.E. | |
| 2 | Mantenimendu Laguntzailea | 1 | | - | 7,5 | | - | MAN | A.E. | S.E. | P.O. | 1. | 1994-12-31 | O | |
| 3 | Monitore Harreragilea | 1 | | - | 8,5 | | - | REC | A.E. | S.E. | P.O. | 3. | 1994-12-31 | MO | |
| 4 | Monitore Balioanizduna | 1 | | - | 8,5 | | - | MO | A.E. | S.E. | P.O. | 3. | 1994-12-31 | MO | |
| 5 | Administrari Laguntzailea | 1 | | - | 8,5 | | - | AD | A.E. | S.E. | T.A. | 2. | 1994-12-31 | A.A. | |

**PREMIAZKO PUNTUA**

Eskaera eta galderen aurretik, Alkate jaunak adierazi du premiazko puntu bat tratatu eta ebatzi nahi duela, hain zuzen ere, GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOAN parte hartzeko ordezkaria izendatzea.

Bozketa egin da, jakin ahal izateko Udalbatzak onartzen duen premiazko puntua tratatzea eta aho batez onartu da.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "Tradizioz eta ohituraz, hiru herritako, hau da, Beasain, Ordizia eta Lazkaoko Alkateak izan dira ordezkariak. Horren ondorioz proposatzen da, Beasaingo Udalaren ordezkaria Goierriko Herrien Ekintza Fundazioan, Alkatea izendatzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

EB/IU eta PSE-EE/PSOEko ordezkariek esan dute beraien jarrera abstentzioarena izango dela.

Beste ordezkariek adostasuna azaldu dute proposamenarekin.

Horren ondorioz, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE, EB/IU)

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da, Patxi Plazaola Muguruza, Alkate jauna izendatzea Goierriko Herrien Ekintza Fundazioan parte hartzeko Beasaingo Udalaren ordezkaria.

**7.- ESKAERA ETA GALDERAK**

ZABOR-BILKETA ZERBITZUAREN ALDAKETA

Alkateak, Pello Garaialde zerbitzu buruari hitza eman eta honek honela dio:

"Udaberri honetan esleitu zitzaion FCC-SUKIA denboraldiko enpresari zabor-bilketaren zerbitzua eta orain irailean martxan jarri behar da. Zerbitzua ematerakoan aldaketa batzuk daude, hala nola, edukinontziak handiagoak izango dira eta ez dira eskuekin ireki beharrak izango, baizik eta hankekin irekiko dira palanka baten bidez. Kamioiak edukinontziak eskuin aldetik jasoko

dituzte. Horren ondorioz, puntu batzuetan tokiz aldatuko dira. Halaber bilketa selektiboa indartu nahi da eta bilketa bera maizago emango da eta era garbiagoan, izan ere edukinontziak sarriago garbituko dira.

Ruido. El ruido se produce en dos ocasiones, cuando el camión va a recoger, y la otra cuando se abre el contenedor. Con la carga lateral, el camión es más silencioso, el contenedor para su vaciado no se va a arrastrar y el camión tardará un minuto en descargar. Respecto del segundo aspecto, el contenedor está protegido con unas gomas para que su cierre sea más hermético, evitando así los problemas de ruido y de olores.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizenez, akta hau idatzi eta sinatu dut.